

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2405

*AGINDUA, 2023ko maiatzaren 10ekoa, Hezkuntza sailburuarena, Sopuertan (Bizkaia) dagoen «San Viator» Lanbide Heziketako Ikastetxe Pribatu Integratuaren baimena aldatzeko dena.*

«San Viator» Lanbide Heziketako Ikastetxe Pribatu Integratuaren titularrak hasarazi duen espedienteaz aztertu da, zeinean eskatzen baitu baimena alda dakiola Lanbide Heziketako erdi-mailako heziketa-ziklo berri bat eta Lanbide Heziketako erdi-mailako espezializazio-kurtso berri bat emateko.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek ikusi dira: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa (apirilaren 9ko BOE), araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa, otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretuaren bidez aldatua (martxoaren 12ko BOE); 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa (uztailaren 30eko BOE), hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena; 1593/2011 Errege Dekretua, azaroaren 4koa (abenduaren 15eko BOE), Mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko teknikariaren titulua ezarri eta gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituena; 250/2012 Dekretua, azaroaren 27koa (otsailaren 4ko EHAA), mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikariari dagokion curriculuma ezartzen duena; 46/2016 Dekretua, martxoaren 15ekoa (apirilaren 1eko EHAA), Lanbide Heziketako hainbat tituluri dagokien curriculuma ezartzeko eta ikastaro osagarriak sortzeko zenbait dekretu aldatzen dituena, hirugarren urtean aurreko tituluei lotutako titulu berriak lortzeko; 281/2021 Errege Dekretua, apirilaren 20koa (maiatzaren 10eko BOE), Ibilgailu hibrido eta elektrikoen mantentze-lanak espezializazio-ikastaroa ezartzen duena eta curriculumaren oinarriko alderdiak finkatzen dituena; eta gai horretan aplikatu beharreko gainerako legeak. Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Aldatu egiten da 2022-2023 ikasturterako jarraian zehazten den ikastetxearen baimena.

Kode zenbakia: 48007818 eta 014824.

Izen generikoa: Lanbide Heziketako Ikastetxe Pribatu Integratua.

Izen espezifiko: «San Viator».

Titularra: Fundación Canónica Autónoma Escuelas Católicas Marcelino Gangoiti.

Helbidea: San Cristobal, 2.

Udalerrria: Sopuerta.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimena:

– Lanbide Heziketako erdi-mailako heziketa-ziklo bat emateko: «Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea».

– Lanbide Heziketako erdi-mailako espezializazio-kurtso bat emateko: «Ibilgailu hibrido eta elektrikoen mantentze-lanak».

Ikastetxearen osaera:

– Lanbide Heziketa:

- Lanbide-arloa: administrazioa eta kudeaketa.
  - Administrazio-kudeaketa, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Administrazioa eta finantzak, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: merkataritza eta marketina.
  - Merkataritza-zerbitzuak, lanbide-heziketako oinarrizko heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: elektrizitatea eta elektronika.
  - Elektrizitatea eta elektronika, lanbide-heziketako oinarrizko heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Instalazio elektrikoak eta automatikoak, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Sistema elektrotekniko eta automatizatuak, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: fabrikazio mekanikoa.
  - Elementu metalikoen fabrikazioa, lanbide-heziketako oinarrizko heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Mekanizazioa, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.
  - Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: gizarte- eta kultura-zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak.
  - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Haur hezkuntza, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak.
  - Ibilgailuen mantentze-lanak, lanbide-heziketako oinarrizko heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.
  - Karrozeria, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Ibilgailu automobilen elektromekanika, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Automozioa, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Ibilgailu hibrido eta elektrikoen mantentze-lanak, erdi-mailako espezializazio-kurtsoa. Edukiera: kurtso 1.

2. artikulua.– Ikastetxeak indarrean dagoen araudia bete beharko du, agindu honen bidez baimentzen zaizkion heziketa-zikloak irakasteko eskatzen diren ikaspostuen kopuruari, ekipamenduari eta irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.— Ikastetxeak Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

4. artikulua.— Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa. Datu pertsonalak tratatu eta «Lanbide Heziketako ikastetxe pribatuen baimenak» izeneko tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea: Lanbide Heziketako ikastetxe pribatuen erregistro ofiziala. Ikastetxeen irekiera- eta ixte-baimenak, baita emandako baimenetan aldaketak ere.

Legitimazioa:

- Aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko beharrezko tratamendua.
- 4/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa.
- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea arautzekoa.

Hartzaileak:

- Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/133300-cap2-eu.shtml>.

Araudia:

- Datuak Babesteko Araudi Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A02016R0679-20160504>).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([https://www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)).

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez dauka bere baitan, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartezko laguntzak lortzea.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 10a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.